

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Erlaitz eta estalki berria girolaren gainean



Santa Maria Katedrala Fundazioak hilabete honetan amaitu ditu erlaitz berri bat eraikitzeko eta eraikinaren burualdeko estalkia eraberritzeko lanak. Horrela, Gasteizko Erdi Aroko almendraren hainbat lekutatik ikus daitekeen elementu arkitektoniko berri eta ikusgarria gehitu zaio.

Lan horien barruan obra berria egin da absidiolo gotikoen kanpoaldeko ingurabidearen gainean hargintzako erlaitz bat jartzeko, bai eta absidiolo gotikoen arkitektura hobeto babestuko duen eta barrualdea behar bezala mantentzea ahalbidetuko duen teilatua jartzeko ere.

Obra girolako hiru abside-kaperetako kontrahorma perimetralen gainean jarri eta hegan egiten duten hamaika ganga txikiz osatutako multzoa da, eta barruan duten forma erradialari jarraitzen diote kanpoaldean. Presbiteriotik aurrera, girolaren trazadura geometrikoak bost kaperako abanikoa garatzen du. Kapera horietako bi elizaren transeptuan sartuta daude, eta beste hiruak kanpoalderantz doaz.

Kapera horiek dauden Katedralaren obraren fase gotikoa izango da, beharbada, interesgarriena arkitekturari dagokionez, baina ondorengo plan-aldaketa batek amaitu gabe utzi zuen haren kanpoko fatxada,

amaitu gabeko obra gisa agertzen zen argi eta garbi. Altuerari dagokionez, obra berriak kontrahorma gotikoen altuera osatzen du leihateak gaintzeko, eta, horien gainean, hargintzako ganga lauak daude, absidiolo bakoitzerako hirunaka multzokatuta, eta beste bi alboetan, transeptuan sartutako kaperari dagozkienak.

Gangak elizaren barnealderantz okertzen dira apur bat, beirateen argi-sarrerara hantitzeko eta erlaitzaren forma trilobulatua nabarmentzeko. Horien gainean teilatu berriaren teilatu-hegala dago, egurrezko egiturarekin, bai eta urak biltzeko eta isurialde handietatik ateratzeko sistema berria ere.

Zorionak eta Urte Berri on!

Santa Maria Katedralako Pilareko kaperan ikus daitekeen egur polikromatuzko Izen Gozoaren Erretaularen jaiotzaren eszena da gure Gabonetako zorion-agurren protagonista. **Jai zorionsuak eta 2023 urte oparoa opa dizkizuegu!**



Gaueko bisitak Gasteizek 'Green Capital' gisa bete duen X. urteurrena ospatzeko

Gasteiz Green Capital izendatzea mugari historikoa izan zen hiriarentzat. 2022an 10 urte bete dira aintzatespen garrantzitsu hori egin zenetik, eta Santa Maria Katedralak ospakizunarekin bat egin nahi izan du gaueko bi bisitak antolatuz. Bertan, ohikoa ez den esperien-

tziar gozatu ahal izango da. Izan ere, informazio honekin batera doan argazkian ikus daitekeen bezala, kandelekin egindako argiztapen berezia egongo da. Urteurrenari buruzko informazio guztia [Gasteizko Udalaren webgunean](#) dago eskuragarri.

Katedrala, erreferentia Ondare eta Turismo Jasangarrian

Santa Maria Katedrala Fundazioak hainbat jardunalditan hartu du parte azken hilabete honetan, eta Kultur eta Natur Ondarearen irisgarritasun unibertsala, turismo jasangarria eta Ondarearen komunikazio sortzaileko jardunbide egokiak nabarmendu ditu.

Azaroaren hasieran, Kultura eta Kirol Ministerioan, eraikinetan oztupo arkitektonikoak kentzearen eta irisgarritasun unibertsal fisiko, sentsorial eta kognitibora iristearen garrantziari buruzko "Kultur Ondare eta Gizarteratzea" mintegia egin zen. Arlo horretan, Fundazioak Santa Maria katedrala "irekia eta irisgarria" izateko egindako lana

eraman zuen. Saioak Ministerioaren [youtube kanalean](#) kontsulta daitezke.

Abenduaren 16an, bestalde, Fundazioak Kultur eta Natur Ondarearen arloko Jardunbide Egokien X. Jardunaldian hartuko du parte. Jardunaldia Hispania Nostrak antolatuta du, eta "komunikazio sortzailea Ondareari aplikatuta" du izenburu. Zehazki, "ondarea kontatzeko beste modu batzuei" buruz eztabaidatzeko gonbita egin diote Fundazioari, sektoreko adituekin batera. Azkenik, Fundazioak Turismo Jasangarriaren 2030erako Euskal Estrategiarako hiri-buruei buruzko "WOKA" Lan Saio batean ere parte hartu du.

Carlos Núñezek musika jarri dio Ate Santuaren itxierari

Urte amaierarekin batera, joan den abenduaren 11n Santa Maria Katedralako Ate Santuaren Itxiera ekitaldia izan zen, eta Carlos Núñez musikari galiziarrek kontzertua eskaini zuen. Bere karismak, espiritualtasunak eta energia, eta beti berarekin daraman gaita galiziarrek, amaiera bikaina eman zioten Vitoria-Gasteizko Galiziar Zentroak antolatutako egunari. Ekitaldia 12:00etan hasi zen, Mezarekin, eta artista ospetsuaren kontzertuarekin amaitu zen.



Agurra Arabako abesbatzen espiritu eta esentzia izan den Alfredo Velari

Alfredo Vela, Bihotzaren Jaialdiaren sortzaile, Florida Abesbatzako kide eta Arabako Abesbatzen Federazioko presidentea ohiak, 80 urterekin utzi gaitu. Pertsona eta profesional gisa erreferente izan denak agur esan digu. Arabako abesbatza herritarrengana hurbildu eta Santa Maria Katedralan "Kontzertuan eta Irekita" zikloan abesbatzaren parte hartzea bultzatu zuen. Kultura eta musika lutoz daude, baina beti izango da gogoratua bere karisma, lan eta ibilbidearengatik. **Goian Bego, Alfredo.**